2024/2025 Jarduera-programa

# Arabako Mendialdeko Kuadrilla

Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola



laia.araba.eus

Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Cuadrilla Montaña Alavesa

araba álava

Laia

# LAIAeskola Arabako Mendialdea

**INFORMAZIOA, KONTAKTUA ETA IZEN-EMATEAK:**

Arabako Mendialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:


945 40 54 24

berdintasuna@arabakomendialdea.eus

Gasteiz-Lizarra Errepidea, 7. 01110 Kanpezu, Araba


**Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea:** ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Haurtzaindegi eta garraio zerbitzua:** ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Gure buletin digitalean izena eman laia.araba.eus bidez**

@LaiaAraba @LaiaAraba @LaiaAraba laia.araba.eus

**#LAIAeskolaMendialdea**

Urizaharrako Udala Ayuntamiento de Peñacerrada

Kanpezuko Udala Ayuntamiento de Campezo

Bernedoko Udala (Araba/Álava) Ayuntamiento de Bernedo


Edukien Elaborazioa: Arabako Mendialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
LAIAko Idazkaritza teknikoa: Berdintasun Proiektuak, S. Coop www.berdintasun.org
Diseinua eta maketazioa: La Debacle www.ladebacle.com
Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia
L.G.: LG G 497-2024

# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| LAIAeskola Arabako Mendialdea | **2** |
| Arabako Mendialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena | **5** |
| Arabako Mendialdeko Kuadrillak indarkeria matxistaren aurkako protokoloak berritu ditu | **6** |
| Eraso matxistarik gabeko jai ASKEAK | **7** |
| LGTBI+fobia erasoak salatzeko Arabako telefonoa | **8** |
| Mendiandreak, Arabako Mendialdeko Batukada Feminista: Ate irekiak | **9** |
| Lodifobiaren inguruko hitzaldia | **10** |
| Irakurketa klub feminista euskaraz | **11** |
| Irakurketa klub feminista gaztelaniaz | **12** |
| Mutilentzako antzerkia: *Man up* | **13** |
| Tailerra: Autodefentsa feminista | **14** |
| Berdintasunaren aldeko I. Ihes-gela | **15** |
| Niretzako astearteak | **16** |
| Hitzaldia: Gizonen rola berdintasunean | **17** |
| Tailerra: antzerki inprobisazioa | **18** |
| Tailerra: Autodefentsa feminista | **19** |
| Bideo-foruma: “La escena del cambio” | **20** |
| Ipuin kontalaria: Berdintasuna maite dugulako | **21** |
| Mintzaldia: Sexua eta boterea Arabako eliza erreomanikoetan | **22** |
| Tailerra: Mikromatxismoak | **23** |
| Berdintasunaren aldeko II. Ihes-gela: Borrokak aurrera darrai | **24** |
| Berdintasunaren aldeko III. Ihes-gela: Uriz-Pi ahizpak | **25** |
| Mintzaldia: Erreginak, nobleak eta basailuak. Emakumeen boterea Haranan Erdi Aroan zehar | **26** |
| Arabako Landa eremuko Emakumeen XXV. urteko Topaketa | **27** |
| Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen Ekintzak | **29** |
| Arte-lehiaketa: *InclusivARTE* | **31** |
| Berdintasunaren aldeko Mendialdeko elkarteen lana | **32** |


AIARA
GORBEIALDEA
ARABAKO LAUTADA
VITORIA-GASTEIZ
AÑANA
TREBIÑU
ARABAKO MENDIALDEA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA


VALLE DE ARANA - HARANA
ARRAIA-MAEZTU
CAMPEZO - KANPEZU
BERNEDO
PEÑACERRADA - URIZAHARRA
LAGRÁN

# Arabako Mendialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena

2024-2025 ikasturterako Arabako Mendialdeko Kuadrillarako LAIAren zazpigarren edizioa aurkezten dizuegu.

Berdintasun zerbitzutik sinetsita gaude ezinbestekoa dela elkartzeko, ikasteko, desikasteko, formatzeko, geure buruak zaintzeko, aliantzak josteko eta genero-berdintasunerantz bidea egiten jarraitzeko indarrak batzen eta sinergiak sortzen jarraitzeko espazioak sortzea.

Horregatik, besteak beste, ahalduntze pertsonal zein kolektiborako tresna gisa sareak eraikitzearen aldeko apustua egiten dugu. Euskara zein gaztelaniazko irakurketa feministen kluben, emakume eta neska gazteen ahalduntze taldeen, maskulinitate berrien taldeen eta abarren bidez sortutako prozesuen alde egiten jarraituko dugu.

Mendialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak Eskualdeko sei udaletxeetan txandaka egiten du lan, beraz, Berdintasun Teknikariarekin zure Udalaren bitartez, Kuadrillara deituz (945 40 54 24) edo ondorengo helbide elektronikoaren bidez (berdintasuna@arabakomendialdea.eus) harremanetan jar zaitezke.

Eskuliburu hau hainbat eragilek gure eskualdean egiten duten lanaren emaitza da, baita hemen bizi diren pertsonek proposatutako jardueren emaitza ere. Berdintasun zerbitzuak zerbitzu ireki eta irisgarria izan nahi du eta, horregatik, jarduerak proposatzera, prozesuak planteatzera eta Berdintasun Zerbitzutik antolatutako ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Guztiok eskualde feministago, inklusiboago, berdintzaileago, anitzago eta askeago baterantz bidea egin dezagun.

# Arabako Mendialdeko Kuadrillak indarkeria matxistaren aurkako protokoloak berritu ditu

2024 honetan, Arabko Mendialdeko Kuadrillatik indarkeria matxistarik gabeko bizitzen aldeko politiketan aurrerapauso nabarmenak egitea aurreikusten da, giltzarri diren eragileen parte-hartzearekin.

Otsailean, indarkeria matxista pairatu duten emakumeekiko arretarako protolokoa sinatu da. Protokoloaren osaketan, Arabako Mendialdeko Kuadrillako oinarrizko zerbitzu sozialak, Mendialdeko IPI ikastetxea eta Maeztuko herri eskola, Ertzaintza eta Berdintasun zerbitzuak parte hartu dute eta helburu nagusia ondorengoa da: indarkeria egoerak pairatzen dituzten emakume eta adin txikikoen arreta hobetzeko koordinazio-mekanismoak hobetzea.

Gainera, martxoan emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako indarearen kontrako erantzun instituzionalerako protokoloen osaketarako prozesua abian jarri da. Horretarako eskualdeko kargu publiko guztiak gonbidatu dira.

Halaber, jaien testuinguruan emakume zein LGTBIQ+ kolektiboaren aurka ematen diren erasoen aurkako protokolo eredu bat landu da. Prozesu honetara Kuadrillako jai batzorde eta Administrazio Batzarrak guztiak gonbidatuak izan dira, baita jaialdien antolatzaile diren pertsonak ere, hala nola, Urturiko UOFF, Lagrango La previa, Orbisonik, Mmf edo AtauriArt ekimenetakoak. Jaialdi bakoitzak bere ezaugarrietara, giza-baliabideetara eta abarretara egokituko den eredu edo jarraibide honen helburua, urtero herri bakoitzak, ahal den neurrian, indarkeria matxisten prebentzioan aurrera egitea da. Era berean, parte-hartzaileak jai feministago batzuen alde egiteko aholkuak jaso dituzte formakuntza gisa eta, besteak beste, oholtzetan emakumeen* presentzia handiagotzea kontuan har dadila.

Ildo berean, azpimarratzekoa da jaien inguruko saio hauetan, parte-hartzaileek Kuadrilla mailako marka baten sorrera proposatu zuten, baita iragarki informatibo bat egitea ere jaietan eta ekimen ezberdinetan jartzeko. Irudia Leire Iparragirre Kanpezuko ilustratzaile eta diseinatzaileak egin du. Era berean, jaietan ipintzen bi pankarta egin dira, baita pegatinak, edalontziak eta abar ere.

Amaitzeko, Lagran eta Kanpezuko jaietan harrera puntu feministak jarri ziren, hurbildu zirenei babesa eta informazioa eman zitzaielarik.

BELDUR BARIK

# ERASO MATXISTARIK GABEKO JAI ASKEAK




## POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES MACHISTAS

**TXIMELETAK ZENTROA.**

**SEXU INDARKERIARI BIKTIMEI LAGUNTZA: 650 80 10 80**

**LARRIALDIAK: 112**

**GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUA: 945 16 12 10**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Laia

Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Cuadrilla Montaña Alavesa

CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA

# LGTBI+fobia erasoak salatzeko Arabako telefonoa

Udako hilabeteetan eta Arabako udalerri askotako jaietan zehar, Ikusgune herri hauetako askotan egongo da LGTBI+-fobiari aurre egiteko gure lurraldean ditugun baliabideak ezagutarazten.

Ikusgune-puntu hauetan, gertatzen zaizun edo ikusten duzun edozein eraso LGTBI+fobiko jakinarazi ahalko duzu. Berdin dio gertaeren une, toki edo larritasuna zein den; konta iezaguzu gertatu den edo ikusi duzun guztia, izan margoketa bat edo eraso serioago bat. Ikusgunek bere babesa eskainiko dizu eta, batez ere, jakin ezazu LGTBI+fobiaren aurrean, ez zaudela bakarrik.

Eta, noski! Eduki itzazu beti gure salaketa-telefonoa (**633 309 653**) eta **www.ikusgune.eus** webgunea eskura, non online salatzeko aukera iraunkorra eskaintzen dizugun. Denon artean Araba atsegin eta feminista hori eraikiko dugu.



# Mendiandreak, Arabako Mendialdeko Batukada Feminista: Ate irekiak




“Mendiandreak Batukada Feminista” taldea gara. Arabako Mendialdeko Emakumeok osatzen dugu taldea eta 2018. urtean sortu ginen.

Martxoak 8, Azaroak 25, eta beste hainbat ekimenetan parte hartu izan dugu.

Hilean birritan elkartzen gara entsaiatzeko eta tailerrak ere antolatzen ditugu. Aurten ate irekiak egin nahi ditugu, beraz, probatzera edo batukada zer den ikustera etorri nahi baduzu, animatu eta parte hartu! Hona hemen gure kontaktua behar duzunerako: mendiandreak@gmail.com

| | | |
|---|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Mendiandreak,** Arabako Mendialdeko Batukada talde feminista | |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko irailak 22**<br>Igandea, 17:30-19:30 | **2024ko urriak 5**<br>Larunbata, 11:30-13:30 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Maeztu | |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat | |
| **Hizkuntza:** | Elebitan | |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Mendiandreak batukada feminista taldea | |
| **Informazio + inskripzioak:** | mendiandreak@gmail.com<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez | |

# Lodifobiaren inguruko hitzaldia




*Asteriskes* Arabako Mendialdean kokaturiko kolektiboa da. Sexu eta genero identitate disidentziak barnebiltzen ditu eta askotariko ekimenak garatzen dituzte: mendi martxak, hitzaldiak, tailerrak, zine-forumak…

Landa eremuan bizimodu ez-normatiboen presentziaz aritu eta honen inguruko lanketak garatzen ditu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Magda Piñeiro,** filosofian lizentziatua eta Teoria Feministan masterduna. Stop Gordofobia webgunearen sortzailea. |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko irailak 27**<br>Ostirala, 19:00 |
| **Tokia:** | Kultur Etxea, Kanpezu |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Asteriskes<br>Kanpezuko Udala |
| **Informazio + inskripzioak:** | asteriskes@hotmail.com<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Irakurketa klub feminista euskaraz



Literatura ona konpartitu eta honek eskaintzen digunaz gozatzeaz gain, feminismoaren historia ezagutzeko asmoz, begirada zabalduko dugu. Mota ezberdinetako irakurketak jorratuko ditugu: saiakera, eleberria, poesia, komikia... Mota guztietako irakurketek ahalduntzerako inspirazioa piztu eta pentsatzea eragiten digute. Gainera, literatur-arloko adituek koordinatutako saioak izanik, gogoetarako aukera ere ematen digu.

Hilean behin bilduko gara irakurketak partekatzeko eta, gainera, hala erabakitzen bada, inguruko herrien artean txandakatu egingo gara. Lehen saioa Santikurutze Kanpezun izango da eta, bertan, ikasturtean zehar egingo diren gainontzeko saioak non egingo diren erabakiko da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Ainhoa Aldazabal Gallastegi,** Skolastika, euskal filologoa eta literatura feministan aditua |
| **Datak eta orduak:** | **Aurkezpena 2024ko urriak 3**<br>Osteguna, 17:30-19:30<br>**Hilean ostegun batean** |
| **Tokia:** | Aurkezpena, Kultur Etxea, Kanpezu<br>Lehenengo saiora joaten diren emakumeekin saioak non egingo diren erabakiko da |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Euskara |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Irakurketa klub feminista gaztelaniaz



Irakurketa klub feminista topaketarako, hausnarketarako eta eztabaidarako gunea da. Bertan, adin, bizitzako momentu, herri, prestakuntza maila, lanbide eta bizimodu ezberdinetako emakumeak biltzen gara feminismoari buruz hitz egiteko.

Eleberriak, saiakera, iritzi-artikuluak, poesia eta abar irakurtzen ditugu eta liburuen edukiaren gaineko gure iritzia, gainontzekoen iritziekin osatzen dugu.

Esperientziak konpartitu eta feminismoaren inguruan ikasteko ere balio digu. Kluba ahalduntzerako eta norbera aberasteko zinezko gunea da.

Eta onena? Primeran pasatzen dugula!

Lehen saioa Santikurutze Kanpezun izango da eta, bertan, ikasturtean zehar egingo diren gainontzeko saioak non egingo diren erabakiko da. Hileko laugarren ostegunean elkartuko gara.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Amparo Montero,** literatura feministan aditua |
| **Datak eta orduak:** | **Aurkezpena 2024ko urriak 24**<br>Osteguna, 17:30-19:30<br>**Hileko hirugarren osteguna** |
| **Tokia:** | Aurkezpena, Kultur Etxea, Kanpezu<br>Lehenengo saiora joaten diren emakumeekin saioak non egingo diren erabakiko da |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Mutilentzako antzerkia: *Man up*



*Man up* 12 eta 16 urte bitarteko antzerki-tailerra izango da eta umorearen eta giro onaren bitartez, egunerokotasuneko gaiak, mutil gazteek jasaten duten presioa, rol eta estereotipoak, harreman toxikoak eta abar aztertuko dituzte. Zatoz eta parte hartu!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Oihan Martirena,** hezitzailea eta talde dinamizatzailea |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko irailak 20**<br>Ostirala, 18:00 |
| **Tokia:** | Kultur Etxea, Kanpezu |
| **Norentzat:** | Mutiko gazteentzat (12-16) |
| **Hizkuntza:** | Euskara |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Kanpezuko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Tailerra: Autodefentsa feminista



Erasoei erantzuten ikasketa neketsua da emakume askorentzat. Autodefentsa feminista autoestimua lantzeko eta autodefentsa feminista eta psikologikorako teknika bat da, ahalduntzearen bidearen baitan kokatuta dagoena.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Esther López Monge,** WEN-DO Metodoko irakaslea eta Safo Eskolaren sortzaile eta sustatzailea |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko iraila**<br>Eguna eta ordua zehazteke |
| **Tokia:** | Kultur Etxea, Kanpezu |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Kanpezuko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Berdintasunaren aldeko I. Ihes-gela




Berdintasunaren aldeko I. Ihes-gela honetan bidaia bat proposatzen dizuegu: XX. mendeko emakume eta gizonen bizitzak irudikatzeko bidaia bat iraganera. Maiordomoz mozorrotutako pertsonaia batek bere jauntxoen jauregia erakutsiko digu. Emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea zen bera eta Clara Campoamorren jarraitzaile sutsua sufragio unibertsalaren aldeko borrokan. María de Maezturen lagun mina ere bazen.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Tramankulu** |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko irailak 22**<br>Igandea, paseak:<br>10:30 – 12:00 – 13:30<br>16:30 – 18:00 – 19:30 |
| **Tokia:** | Haranako Udala |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Haranako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Niretzako astearteak



Elkarlanean eraikitako topagunea da hau, parte hartzen duten emakumeen interesak biltzen dituena. Lan honen gakoak ondorengo hauek dira: belaunaldiartekotasuna, norberaren ongizatea, gorputza eta bere mugimendua eta auzokideen arteko laguntza-harremanak.

Landa-eremuko emakumeen bizitzaz eta urteetan zehar bizi izandako aldaketez hausnartuko dugu, euren bizitzetan zehar pilatutako bizi-jakintzak jaso eta balioan jartzeko.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzaileak:** | **Miriam Ocio Saenz de Buruaga,** psikologoa eta komunikazioan eta lidergotzan espezializatutako hezitzailea eta Elena Gutierrez Pérez del Notario, coach eta lidergotza sistemikoa, gorputz-terapeuta, terapeuta transpertsonala eta Ayurbeda sisteman aditua |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko irailak 24 – Harana**<br>**2024ko urriak 8 – Kanpezu**<br>**2024ko urriak 22 – Maeztu**<br>17:30-19:30 |
| **Tokia:** | Haranako Udala<br>Kultur Etxea, Kanpezu<br>Zentro soziokulturala, Maeztu |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Haranako Udala<br>Kanpezuko Udala<br>Arraia-Maeztuko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Hitzaldia: Gizonen rola berdintasunean




Hitzaldi honetan, gizonen nagusitasunari, sexismoari eta sistema patriarkal zapaltzaileari heltzeko ardurak eta kontzientziak duten garrantzia azpimarratuko da. Gizonak botere eta lehiakortasun harremanetan hezi eta jendarteratu dituzte historikoki, eta hitzaldi honetan, afera horiei buruzko gogoeta serioak sustatuko dira. Gainera, joera horien aurreran, erantzun eta tresna ezberdinak proposatuko dira, arestian aipatutakoaren kontzientzia hartzea ahalbidetuko duena. Funtsezkoa da gizonak jendarte justu, berdinzale eta demokratikoago baten alde ikuspegi feministatik inplikatzea.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Ber Murillo, Ongiz-Ezberdin** |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko urria**<br>Eguna eta ordua zehazteke |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Lagran |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Lagrango Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Tailerra: antzerki inprobisazioa



Ahaltzatik, arte eszenikoen eskola transfeministatik, antzerki inprobisazio tailer trinko bat proposatzen dizuegu, entzuketa aktiboa, eskuzabaltasuna eta sormen kolektiboa lantzeko helburua duena.

Inprobisazioa geure mugak non dauden deskubritzeko eta hauekin esperimentatzeko, blokeoak desegin eta ahalduntze pertsonal zein kolektiboarekin konektatzeko tresna zoragarria da.

Jolasaren eta ondo pasatzearekin zerikusia duen proposamena da honako hau. Arte eszenikoetara hurbiltzeko aukera ematen die antzerkian hasi nahi duten pertsonei zein antzerki-inprobisazioaren balibabide propioetan sakondu nahi duten horiei ere.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzaileak:** | **Arte eszenikoen eskola transfeminista**<br>**Zahira Montalvo,** arte dramatikoan lizentziatua, Kancaneo Teatro-ko sortzailea eta arte eszenikoen eskola transfeministako koordinatzailea |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko urriak 19**<br>Larunbata, 10:00-14:00 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Urizaharra |
| **Norentzat:** | Emakumeak, trans* eta ez bitarrak |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Ahaltza Arte eszenikoen eskola transfeminista<br>Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Ahaltza Arte eszenikoen eskola transfeminista<br>654 74 80 71 / eskolaeszenikofeminista@gmail.com<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Tailerra: Autodefentsa feminista



Tailer honetan hainbat kontu landuko ditugu: ahalduntzea, autoestimua, norberaren zein kolektiboaren indarra eta indarkeria matxista mota ezberdinen aurrean (fisikoa, ahozkoa, sexuala, jarrera matxistak, genero-rolak...) defendatzeko hamaika tresna. Emakume heldu zein gazte, pertsona trans* eta ez-bitarrentzako gunea izan nahi du, konfiantza osoz, matxismoarekin lotutako bizipenak konpartitu eta hauen aurrean estrategiak kolektiboki garatzeko aukera izan dezagun, geure arteko elkartasuna bultzatuz. Erasorik ez, erantzunik gabe!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Ana Jorge,** Kungfú-ko 3. Dan-a, gerriko beltza Kungfú, co-fundadora de la *Escuela de Kungfú y Taichí Yù Táng-eko* sortzailea, autodefentsa feministan aditua |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko urriak 19**<br>Larunbata, 16:30-20:30 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Lagran |
| **Norentzat:** | Emakumeak, trans* eta ez bitarrak |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Ahaltza Arte eszenikoen eskola transfeminista<br>Lagrango Udala<br>Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Ahaltza Arte eszenikoen eskola transfeminista<br>654 74 80 71 / eskolaeszenikofeminista@gmail.com<br>www.arabakomendialdea.eus<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Bideo-foruma: “La escena del cambio”




“La escena del cambio” dokumentalaren aurkezpen pilotua izango da, eta jarraian, ikusiriko ikus-entzunezko materialari eta arte eszenikoek gaur egun duten garrantziari buruzko solasaldi-eztabaida egingo dugu. Solasaldian, arte eszenikoetan transfeminismoak duen beharraz eta horiek jendartean duten garrantziaz, kulturan duen eraginaz eta honen gaitasun eraldatzaileaz eztabaidatuko da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Arte eszenikoen eskola transfeminista,** 2023an arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoen munduan eta gizarte hezkuntza diharduten emakumeek Araban sortutako elkartea |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko azaroa**<br>Eguna eta ordua zehazteke |
| **Tokia:** | Kanpezu |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Ahaltza Arte eszenikoen eskola transfeminista<br>Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Ahaltza Arte eszenikoen eskola transfeminista<br>654 74 80 71 / eskolaeszenikofeminista@gmail.com<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Ipuin kontalaria: Berdintasuna maite dugulako



"Berdintasuna maite dugulako" ikuspegi feminista duten ipuin bilduma bat da. Ipuin-kontaketak iraun bitartean, konturatuko gara, sarri, bizitzako gertaerei beste modu batean aurre egin beharko geniekeela pentsatu arren, gure beharrak eta nahiak asetzeko modu ezberdinak badaudela. Modu dibertigarri eta atsegin batean, gauzak egiteko modu berriak badaudela ikasiko dugu ipuin hauen protagonistak izango diren printze, printzesa, neska eta mutilekin.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Ines Bengoa,** ipuin kontalaria |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko azaroak 15**<br>Ostirala, 17:30 |
| **Tokia:** | Zentro soziokulturala, Maeztu |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Euskara |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arraia-Maeztuko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Mintzaldia: Sexua eta boterea Arabako eliza erreomanikoetan



Arte erromanikoa garatu zen mendeetan, Elizaren eta nobleziaren artean botere politikoa eskuratzeko lehia izan zen, sexua epizentrotzat izan zuena. Nobleziak bere nagusitasuna zilegi bilakatzen zuen ugalketa oinarri nagusitzat hartzen zuen bitartean, Eliza zelibatua eta sexu-abstinentziaren eredua inposatzen saiatzen zen, euren buruak jendartearen maila gorenean kokatuz. Borroka hau Arabako tenplu erromanikoen irudietara eraman zen, garai hartan lehian zeuden bi sexualitate ereduak islatzen zituena: gehiegikeria eta nobleziaren sexu-erakustaldia errepresioaren aurrean eta haragiaren plazeraren gaitzespen erlijiosoa.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Isabel Mellén Rodríguez,** filosofoa eta artearen historialaria. Erdi Aroko artea ikuspegi feministatik ikertzen du |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko azaroak 15**<br>Ostirala, 19:00 |
| **Tokia:** | Kultur Etxea, Kanpezu |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Kanpezuko Udala<br>Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Tailerra: Mikromatxismoak

Kuéntame elkartearen *Igualdad a pie de calle* programaren baitan, ondorengo tailerra proposatzen da: emakumeok, emakume izate hutsagatik pairatzen ditugun eraso, diskriminazio eta bereizketa mota sotil eta normalizatuak aztertzea. Matxismoa betikotzen laguntzen duten mezuen, irudien, sinesmenen, arauen eta eguneroko praktiken bitartez adierazten dira diskriminazio eta eraso hauek.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzaileak:** | **Saioa Sanchez y Mari Carmen Alastruey,** Kuéntame Elkartea, eskuhartze sozial eta komunitarioan espezializatutako genero-berdintasun agenteak |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko azaroak 21**<br>Osteguna, 17:00-19:00 |
| **Tokia:** | Kultur Etxea, Kanpezu |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat (lehentasuna emango zaio 50 urtetik gorako pertsonen parte-hartzeari) |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Kuéntame Elkartea<br>Nuestra Señora de Ibernalo erretiratuen elkartea<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Kuéntame Elkartea<br>649 46 86 99 / 663 06 05 84<br>asociacionkuentame@gmail.com<br>www.kuentame.weebly.com<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Berdintasunaren aldeko II. Ihes-gela: Borrokak aurrera darrai



Denbora atzera bidaiatzera ausartuko zinateke? Ezer ez da zirudiena. Dena aldatzen da.

Jauregi berera bidaiatuko dugu, enigma eta erronka berriei aurre egiteko. Historiak aurrera darrai. Mugimendu feministaren abentura berri batean murgilduko zara, II. Errepublikako pertsona esanguratsua izan zen emakume bat ezagutu dezagun. Bidaia honetan, berdintasunaren bila historia egin zuen beste emakume batek lagunduko digu, María de Maeztuk. Honek ahalegin guztiak egin zituen emakumeen hezkuntza bermatu zedin eta, bereziki, unibertsitatean sartzea lor zezaten. Pedagogoa eta irakaslea, Gasteizen jaio zen eta Lizarran lurperatu zuten. Madrilen Andereñoen Nazioarteko Egoitza delakoa sortu eta zuzendu zuen eta emakumezkoen Lyceum Club-ean parte hartu zuen. Erakunde bietan adinkide zen Clara Campoamorrekin batera hainbat proiektutan parte hartu zuen.

Bidaia honetan orain arte lortutakoa agerian geratzen da, baina baita errealitate gordina eta soldata arrakala eta genero-indarkeria bezalako gaietan aurreratzeke duguna ere.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Tramankulu** |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko azaroak 23**<br>Larunbata, paseak:<br>10:30 – 12:00 – 13:30<br>16:30 – 18:00 – 19:30 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Bernedo |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Bernedoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Berdintasunaren aldeko III. Ihes-gela: Uriz-Pi ahizpak




Josefa eta Elisa Úriz Pi ahizpak Nafarroan jaiotako emakumeak dira – 1883an eta 1893an, hurrenez hurren –, XX. mendeko nazioarteko proiekzio handiena dutenak, gizarte eta balio demokratiko unibertsalen aldeko konpromesua eta borrokaren benetako adibidea.

Jatorriz Badoztaingoak, Iruñetik oso gertu dagoen Eguesibarreko herri txikia, bizitza osoa eman zuten emakumearen eta haurtzaroaren eskubideen alde lan egiten. 'Escape room' honekin, nafar jatorriko ahizpa hauek erakutsi zuten indarra, ausardia eta ahalduntzea omendu nahi da, gaur egun oraindik ezezagunak baitira pertsona askorentzat.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Tramankulu** |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko azaroak 24**<br>Igandea, paseak:<br>10:30 – 12:00 – 13:30<br>16:30 – 18:00 – 19:30 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Urizaharra |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Urizaharrako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Mintzaldia: Erreginak, nobleak eta basailuak. Emakumeen boterea Haranan Erdi Aroan zehar



Erdi Aroan zehar Haranako bailaran, Kontrasta eta Done Bikendi herriak sortu ziren, jaurerri baten inposaketak eskubide-galerak ekarri zituen eta nobleen botere despotikoa eraisteko matxinada sozialak izan ziren. Prozesu horietan guztietan, emakumeek ezinbesteko rola jokatu zuten, bereziki, erreginak eta emakume nobleek.

Mintzaldi honetan, Isabel Mellén-ek Erdi Aroko boterearen alde femeninoa nabarmenduko du eta gaur tokiko ondarean emakume haiek utzitako ondarearekin konektatuko du.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Isabel Mellén Rodríguez,** filosofoa eta artearen historialaria. Erdi Aroko artea ikuspegi feministatik ikertzen du |
| **Datak eta orduak:** | **2024ko abenduak 21**<br>Larunbata, 18:00 |
| **Tokia:** | Gizarte etxea, Harana |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Haranako Udala<br>Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua |
| **Informazio + inskripzioak:** | Mendialdeko Berdintasun Zerbitzua<br>945 40 54 24 / berdintasuna@arabakomendialdea.eus<br>www.arabakomendialdea.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Arabako Landa eremuko Emakumeen XXV. urteko Topaketa

## Asoziazionismoa eta ahalduntzea eztabaidagai

"Emakumeen elkarteak, eraldaketa pertsonala eta kolektiboa: ahalduntze feministarantz" gaiaren inguruan ezagutzeko, hausnartzeko eta elkarrekin eraikitzeko jardunaldia.

**Egitaraua:**

- **10:00.** Ongietorri instituzionala
- **10:30.** "Ahalduntze indibidual eta kolektiborako emakumeen sareak: tresnak eta erronkak" ponentzia, Maitane Picazaren eskutik. Bere tesia ondorengoa izan zen: *Emakumeentzako gune propioak eta ahalduntze prozesuak: Bizkaiko jabekuntza eskolen sarea*.
- **11:30.** Arabako elkarte eta sare feministetako ordezkariekin mahai ingurua: Mari Gómez (Solastiar Elkartea), Gure Soroa eta Bastidako Emakumeen Elkarte “Peña de Toloño”-ko ordezkariak eta Xabi Odriozola (EzBerdin)




- **12:30.** Kaferako etenaldia
- **13:00.** Talde-dinamika. Ondorioak
- **15:00.** Herri bazkaria
- **17:00.** Ikuskizuna
- **18:00.** Esker emateak, agurrak eta itxiera

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea** |
| **Data eta ordutegia:** | **2024ko irailak 28**<br>Larunbata, 10:00-18:00 |
| **Tokia:** | Kultur Etxea, Kanpezu |
| **Norentzat:** | Arabako Landa Eremuko emakume eta elkarteentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak - laguntzaileak:** | Arabako Foru Aldundia<br>Kanpezuko Udala<br>Kanpezuko Emakumearen Kultur Elkartea |
| **Informazio + eta inskripzioak** | Izen-emateak ondorengo estekan:<br>https://forms.gle/SE1PScMSaRvc95zL7 |



# Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen Ekintzak

Sareak Arabako kuadrilla guztietako herri ezberdinetan genero-berdintasunaren aldeko ekintzak antolatu eta dinamizatzen ditu. Helburuen artean ondorengoak daude: landa eremuko emakumeen arteko saretzea, euren beharrak aintzat hartzea eta proiektuak bultzatzea. Halaber, arrakala digitala murriztea, sare sozialen eta mezularitzaren erabilera arduratsua sustatzea eta online-izapideak nola egiten diren irakastea dute helburu. Gainera, belaunaldien arteko ekintzak egiten dituzte komunitatea eta kidetasun-sentimendua eraikitzeko.



**Landa eremuan Berdintasuna lortzeko belaunaldien arteko elkarbizitza solidariorako proiektua:** Zigoitian, Samaniegon, Zuian eta Buradon Gatzagan.

**Emakume gazteak eta sare sozialak. IKT-ak "Leiho bat mundura: aukera ala arriskua?":** Dulantzin eta Bilarren.

**Ezagutu ezazu zure burua zure bizitza gidatuz zoriontsu izateko:** Argantzunen eta Erriberabeitian.

**On-line izapideetara hurbiltzea eta arrakala digitalari aurre egitea:** Kanpezun, Zalduondo, Laudion y Oionen.

**Sarea egin:** kuadrilla bakoitzean erabaki beharreko herri batean.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea** gai ezberdinetan espezializatutako pertsonekin batera |
| **Data eta ordutegia:** | **2024ko irailetik urrira bitarte**<br>Datak eta ordutegiak zehazteke |
| **Tokia:** | Kuadrilla ezberdinetako herrietan |
| **Norentzat:** | Landa eremuko emakumeentzat eta landa eremuko emakume-elkarte eta taldeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak - laguntzaileak:** | Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Jarduera bakoitzean behar bezala informatuko da<br>Informazio gehiagorako:<br>https://www.mujeresruralesalavesas.org/<br>redmujeresmedioruralalava@gmail.com |

# Arte-lehiaketa: *InclusivARTE*

*InclusivArte,* hainbat arte-diziplina uztartzen dituen lehiaketa, ikuspegi feministatik aniztasun funtzionala duten emakumeen errealitatea ikusarazteko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta desgaitasun fisiko/aniztasun funtzionala dugun emakumeok pairatzen ditugun indarkeria eta diskriminazio egoerei buruz sentsibilizatzeko helburua duena.

| | |
|---|---|
| **Antolatzailea:** | **Eginaren Eginez,** desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen Arabako elkartea |
| **Datak:** | **2024ko irailetik azarora bitarte** |
| **Tokia:** | Arabako kuadrillak<br>(Gasteiz salbu) |
| **Norentzat:** | Herritar guztientzat |
| **Hizkuntza:** | Elebitan |
| **Antolatzaileak - laguntzaileak:** | Eginaren Eginez<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio gehiago:** | Eginaren Eginez<br>945 22 55 16 – 656 79 60 32<br>info@eginez.org<br>www.eginez.org<br><br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Berdintasunaren aldeko Mendialdeko elkarteen lana



Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek, beren aniztasun eta esperientziarekin, genero-desoreka inguruko hausnarketa kritikoa sustatzen duten hezkuntza-programak, tailerrak, jarduerak, ekintzak eta proiektuak garatzen dituzte, besteak beste. Arabako Foru Aldundia aliatu eta bideratzaile gisa kokatzen da, jendarteak aurrera egin dezan laguntzen duten ekimenak bultzatuz eta babestuz.

Hurrengo koadroan Mendialdeko Kuadrillan proiektu desberdinak aurreikusten dituzten erakundeen datuak aurkituko dituzue. Eskuliburu honetarako, baina, ezin izan dituzte ekintzak zehaztu:

| | |
|---|---|
| **AFRIKALDIA, afrikar zinemen euskal jaialdia 2024** | Afrikar zine-forum proiekzioa |
| **Samurrak aniztasun sustapen elkartea** | Sexu, genero eta kultura aniztasun tailerrak Arabako ikastetxe eta elkarteetan |
| **Mendialdea IPI gurasoen elkartea** | Nire mugak ezagutzen eta errespetatzen, gai feminista ugariren inguruko formazioak |

Samurrak Aniztasuna
Sexologia - Berdintasuna - Kulturartekotasuna

afrikaldia